

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

**2020ko martxoaren 11ko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez deia egiten baita 2019/2020 ikasturte akademikoan musika ikasketak egiteko laguntzetarako**

BDNS (identifikatzailea): 503614

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

#### Helburua

Finantzatzen laguntzea Donemiliagako udalerrian erroldaturiko adingabeek udalak berak eta musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek 2019/2020 ikasturtean antolaturiko musika ikasketetan izena emateak eragindako gastuak, salbu eta udalak hitzartutako musika eskoletako izen emateen gastuak.

#### Onuradunak

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean adingabeak direnak, baldin eta, diruz lagunduko den jardueran izena emateko epea hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon badira, eta Donemiliagako Udalak edo musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek egindako musika jardueretara joaten badira, salbu eta hitzartuek egiten dituztenetara, 2019/2020 ikasturtean.

#### Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2020ko martxoaren 11n egindako bilkuran onetsiak.

#### Zenbatekoa

Onuradun bakoitzak gehienez ere dirulaguntza hau jaso ahalko du:

\* 180,00 euro, baldin eta onuradunak izena eman badu Donemiliagako Udalak antolaturiko musika ikasketetan.

\* 180,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketetako bi maila edo gehiago egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

\* 130,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketen arlo bat egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

Oinarrietan jasoriko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango musika ikasketen kostu osoaren ehuneko 50 baino gehiago, eta era berean, ezingo da gainditu udal aurrekontuaren gehienezko muga.

Onetsitako aurrekontuko aplikazioa nahikoa ez bada eskaera guztiei aurre egiteko, gehienezko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

#### Aurrekontu zuzkidura

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hau da: 326.482.001. Partida horren zuzkidura, gehienez, 3.000 euro izango da.

**Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak Donemiliagako udaletxean aurkeztu behar dira, 2020ko irailaren 23ra arte.

Erdoña, 2020ko apirilaren 21a

*Alkatea*

*ERIKA LETAMENDI HURTADO*